

**EDITH STEIN-EN KRONOLOGIA**

- 1891** Breslau-n jaio zen familia judutar batean. Hamaika seme-alaben artean gazteena izan zen; beraietarik lau txikitan hil ziren. Beraren aitak, Siegfried Stein-ek, zur-merkataritzan egiten zuen lan. Ama Auguste Courant deitzen zen.
- 1893** Uztailaren 10ean Siegfried Stein (1843-1893), bere aitaren heriotza. Auguste Courant (1849-1936), bere amak hartu zuen etxeko zur-negozioaren ardura.
- 1897** Ikasketei hasiera eman, neo-kantiarren razionalismoak markatutako ideologia liberala zuen Breslau-ko *Viktoria* protestanteen eskolan.
- 1906** Maiatzetik 1907ko martxorarte Hamburgetako Elsa Stein ahizpa nagusiaren etxean.
- 1906** Edith Steinek krisialdi pertsonala izan zuen gaztaroaren erdi-erdian. Eskola uztea erabaki zuen; era berean jakinaren gainean utzi egin zuen erlijioa, ez ziola-ko esangurarik aurkitzen.
- 1908** Batxilergoa egiten hasi zen *Viktoria* eskolan.

- 1911** Martxoaren 3an, errebalida emaitza bikainak lortuz. Apirilaren 28an Breslau-ko unibertsitatean matrikulatu zen.
- 1912** Urduri jarri eta zirrara handia egin zion "Eine Geschichte aus unsrer Zeit" (*gure garaiko historia bat*) eleberria irakurri zuen (Gogoko beheraldia 1912an, Bach-en ohoretan eginiko jaiari gaitutako zuen).
- 1911-13** Bere jaiotza-hiriko unibertsitatean historia, psikologia eta germanistikako ikasketak burutzen. Zenbait talde berritzailetan parte hartzen hasi zen, pedagogia alorrean nahiz emakumeen eskubideen aldekoan. Psikologia zela eta, krisialdi intelektualak. Husserl irakurri ondoren unibertsitatez aldatzea erabaki zuen.
- 1913** Husserl irakasle lanetan ari zen Göttingen-go unibertsitatean jarraitu zuen ikasten. Fenomenologiak hautsi egin zizkion bere aurriritzi razionalistak. Max Scheler-ekin egin zuen topo: sinesmenaren mundua jartzeko aurrez aurre.
- 1913-15** Emakumeak botoa ematea defendatzen zuen elkarte prusiarreko partaide egin zen.
- 1914** Ekainaren 29an lehen mundu-gerraren hasiera (1914-1918).
- 1915** Urtarrilean estatuko azterketa egin zuen historian, filosofian eta germanistikan. Gurutze Gorriko herizain boluntario egin zen Austriako Mährisch-Weisskirchen-go ospitalean. Epe labur batean irakasle Breslau-n.

- 1916** Enpatari buruzko doktore-tesia Friburg-en, notarik handiena lortuz (*Summa cum laude*).  
Husserl-en laguntzaile.
- 1917** Adolf Reinach-en heriotza izan zen Edith Esteinek Kristoren Gurutzearekin topo egiteko lehen urratsa.
- 1918** Nahita utzi zuen Husserl-en laguntzaile postua. Une honetatik aurrera unibertsitateko katedra eskuratzeko ahaleginetan jardun zuen, ez zuelarik lortzen, garai hartan itxiak zituztelako atea emakumeek.  
Bien bitartean zenbait zientzia-lan egiten jarraitu zuen.  
Barnean sinesmenaren bila ziharduen.
- 1919** Politika-jardueran aritu zen Weimar-en errepublika ezartzea zela eta. Göttingen eta Kiel-en unibertsitateko katedra lortzeko saioa egin zuen, ez zuelarik lortu emakumea zelako. Bien bitartean zenbait zientzia-lan egiten jardun zuen.
- 1920-21** Krisialdi bizian eta barrutik egiaren bila eginiko urteak.
- 1921** Hedwig Conrad-Martius bere adiskidearen etxean Bad-Bergzabern-en zegoelarik, Santa Teresa Jesusenaren autobiografia irakurri zuen, katoliko egiteko erabakia hartuz. "Karmel zen nire jomuga... halabeharrez nire eskuetara heldu zen Santa Teresaren Bizitzak bat-batean amaiera eman zion egiaren bila egin nuen ibilbideari".
- 1921** Breslau-ko bere etxean jarraitu zuen, Erna bere ahizpari, amari bere berehalako konbertsioaren berri emateko aginduz.
- 1922** Urtarrilaren 1ean bataioa hartu zuen Bad-Bergzaberneko San Martin elizan.

- 1922** Otsailaren 2an, sendotzako sakramentua eman zion bere kaperan Speyer-ko apezpikuak (Andre Mariaren Garbikunde egunean).
- 1922** Urrian, berriro Breslau-ra itzuli zen.
- 1922** Lanak argitaratu "Jahrbuch für Philosophie und phänomenologische Forschung" zeritzanean.
- 1923** Apiriletik aurrera literatura eta alemaniera irakasten domingotarren Santa Magdalena ikastetxean, Espiran.
- 1924** Beraren Untersuchung Über den Staat (Estatuari buruzko ikerketa) argitaratu zen.
- 1928** Lehen harremanak Beuron-go abadiarekin eta espiritugidari izango zuen Aita Rafael Walzer-ekin.  
Urte honetan hasita hitzaldi ugari eman zituen emakumeen arazoei buruz nahiz heziketa katolikoari buruz, Alemaniako hainbat hiritan eta inguruko Herrialdeetan.
- 1928** Akinoko Tomas santuaren "De veritate" liburua itzultzen.
- 1931** Utzi egin zuen Speyer, Akinoko Tomas santuaren "De veritate" liburua itzultzeko astia behar zuelako. Unibertsitateko katedra bat lortzen saiatu zen.
- 1932** Antropologia eta pedagogiako irakasle lanetarako deia egin zioten Münster-eko pedagogia zientifikoa-ren Institutu alemaniarretik.  
Urte honetan, Juvisy-ko (Paris) Nazioarteko Tomisten Batzarrerako konbidapena jaso zuen. Bertan Mari-tain-ekin harremanetan jarri zen.
- 1933** Gutuna idatzi zion Pio XI. Aita Santuari Alemaniako nazionalsozialismoak hebraitarren aurka hasitako ja-

zarpenen berri emanez, eta Entziklika bat eskatuz. Erantzun gisa Aita Santuaren bedeinkapena jaso zuen.

- 1933** Abuztuaren 16an, Karmelen sartzen zela jakinarazi zien amari eta ahizpei.
- 1933** 1963.ean argitaratu zen (zati batez) *Aus dem Leben einer jüdischen Familie (judutar familia baten bizimoduari buruz)* autobiografia hasi zuen.
- 1933** Hitler-ek agintaritza eskuratzeak amaiera ekarri zion beraren irakaskuntzako lanari.  
Urriaren 14an Koloniako Karmelen sartu zen.
- 1934** Apirilaren 15ean Karmelgo abitua jantzi zuen Teresa Benedikta Gurutzekoa izena hartuz.  
Aita Probintzialak baimena eman zion zientzia-jardueran jarrai zezan komentuan.
- 1935** Apirilaren 21ean egin zuen lehen profesia hiru urterako.  
Irailaren 15ean: "Reich-eko hiritarren legea" eta "alemanen odol eta ohorearen babeserako legea".
- 1936** *Endliches und Ewiges sein [Izaki mugatua eta izaki mugagabea]* lan handia burutu zuen.  
Irailaren 14an hil zitzaion ama, botoak berriztatzen zituen ordu berean.  
Abenduaren 24an bere ahizpa Errosek bataioa hartu zuen Kolonian.
- 1937** Matxoaren 14an, Pio XI.ak Entziklika bat argitaratu ideologia totalitarioa Elizak inoiz egin izan duen argien gaitzetsiz.

- 1938** Apirilaren 10ean, plebiszitu-eguna. Edith Stein Hitler-i ezezko botoa ematearen alde agertu. Gestapoarekin istilu bat izan ondoren, berriro etxez aldatzea eskatu zuen.
- Apirilaren 21ean behin betiko profesia egin zuen.
- Apirilaren 27an, Husserl-en heriotza.
- Urriaren 14an, Arno bere anaia etorri zitzaion, Ameriketarako bide hartu aurretik agurtzera.
- Kristal bautsiak* deituriko gau ospetsuaren (azaroaren 9 eta 10 artekoa) ondoren, Alemanian judeguren aurkako joera handituz zihoala ikusirik, komunitateari arriskurik ez ekartzeko, Koloniatik alde egitea erabaki zuen, abenduaren 31n Holandako Echt-eko Karmelera aldatuz.
- 1939** Bere familiarterako batzuk Estatu Batuetara, Kolonbiara nahiz Norvegiara inmigratzea lortu zuten.
- Bere ahizpa Errose Echt-era etorri, eta karmeldar hirugarrendarra egin zen, komentuko atezain-lanean arituz.
- Martxoaren 26an (Nekaldia deritzan igandea), Edith Steinek priorari "Jesusen Bihotzari benetako bakearen alde espiazio-oparitzat bere burua eskaintzeko" baimena eskatu zion.
- Ekainaren 9an (Jesusen Bihotzaren jaietan), testamentua idatzi zuen.
- Irailaren 1ean Bigarren Mundu-Gerraren hasiera (1939-1945).
- 1940** Hitler-en armadak menpe hartu Holanda.
- 1941** Urte-hasieratan, ama nagusiak ahizpa Benedicta atezain lanetatik aske utzi zuen zientzia-lanetarako asti gehiago izan zezan.

Dionisio Areopagitari buruzko lan bat idatzi zuen.

*Gurutzearen zientziari* hasiera eman.

**1942**

Apirilean Gestapok arakatuak bera eta bere ahizpa Errose.

Uztailaren 11an, Holandako eliz agintariek Seyss-Inquart, Reich-eko komisarioari bidalitako juduen deportazioaren aurkako protesta-telegrama.

Uztailaren 26an, protestaren irakurketa Holandako eliza guztietan. Apezpiku katolikoek artzain-idazki bat iragartzen dute.

Uztailaren 28an, Edith Steinek bere Breslauko anai-arrebak familiakoekin batera Theresienstadt-eko kontzentrazio esparrura eramana izan zirela jakin.

Arratsaldez Amersfoort-erantz atera ziren automobilez.

Abuztuaren 2an SS-ek beraren ahizpa zen Erroserekin batera komentutik atera, eta Westerbork-eko kontzentrazio-eremura eramana zuten.

Abuztuaren 3an, heldu ziren goizeko hiruretan.

Bertan egon ziren (9. barrakan) asteleheneko goizaldetik astearteko gauerarte.

Ahizpa Benediktak lehen gutuna idatzi zion Echt-eko komentuko prioreari.

Abuztuaren 4an, goizean sartu zuten Westerbork-ko kontzentrazio-esparruan.

Abuztuaren 6an, ahizpa Benediktak bigarren gutuna idatzi zion Echt-eko komentuko prioreari. Era berean, ohar bat idatzi zion Suitzak Hayan zuen kontsulari.

Poloniarak bidaliak izango zirela jakin.

Abuztuaren 7an, lehen orduan Auschwitz-eko kontzentrazio-esparrura eramana. Auschwitz-en Edith

Steinek 44.074. zenbakia izan zuen.  
Abuztuaren 9an hil zuten gas-kameran.

\* \* \*

- 1950** Endliches und ewiges Sein (izaki mugatua eta izaki mugagabea) berak idatzitako filosofia-lanik mardule-  
na argitaratu zen. \*
- 1962** Urtarrilaren 4an, kanonizaziorako eliz prozesuari ofi-  
zialki hasiera ematea.  
Uztailaren 25ean, kanonizazio-kariaren idatzizko pro-  
zesua irekitzea.
- 1972** abuztuaren 9an, Edith Steinen heriotzaren 30. urte-  
mugan, Koloniako Karmelen ospakizun bat eginez  
Höffner kardinalak amaitutzat jo zuen elizbarrutiko  
prozesua.
- 1980** Alemania eta Poloniako apezpikuek dohatsu aitortze-  
ko eskatu zuten.
- 1987** Maiatzaren 1ean, Joan Paulo II.ak dohatsu aitortua  
Koloniako futbol-zelaian.
- 1997** Kanonizaziorako mirariaren onarpena.
- 1998** Urriaren 11n, santa aitortua.

*(J.U. - P.U. - J.M<sup>a</sup> A.)*